


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroa Internet eta bideojokoen munduan murgilduta dagoen edonor izan daiteke. Lehen “Balorezko proposamena” atalean azaldu dugu gure enpresa zertan datzan.

Hala ere, gure enpresa berritzailea izanik, eta gure enpresaren moduko askorik ez egoteak, gure bidea guk zehaztea ahalbiditzen digu. Gure bezeroei dagokienez, gehienak pertsona gazteak izango dira eta gazteak izanik, beraiantzako laguntzaielak eta bid honetik eramango dituzten pertsonak izango gara.



Beraz, gure enpresa merkatu segmentatua izango da, merkatu zehatz bati egongo da zuzendua. Hauen ezaugarrien artean honako hauek topatuko ditugu: gailu elektronikoez afizioa (adibidez: ordenagailuak, kamarak, Play Station-ak...), jendearekin komunikatzeko gogoia...

Beste alde batetik, oso garrantzitsua da gure bezeroak ehuneko ehunen beraien lanean zentratu egotea; izan ere, gure lana beraien mundu berdinean lan egiten dutenen arteko negoziazioan oinarritzeaz gain, zerikusirik ez duten markekin ere lan egingo dugu, eta garrantzitsua da egunero gure bezeroak lanean egotea, ondoren guk kontratuak egin ditzagun. Hau da, gure bezeroak geroz eta famatuagoak izan, orduan eta aukera gehiago izango ditugu kontratu desberdinak egiteko.

Gure enpresako bezeroek ezaugarri komun batzuk edukiko dituzte, baina hala ere, gure enpresaren barruan ezaugarri desberdinak edukiko dituzten taldeekin ere lan egingo dugu. Hau da, S&PP REPRESENTING AGENCY enpresan “streamer”, “youtuber”, eta “jokalari profesionalekin” egingo dugunez lan, beraien beharretara moldatuko gara. Hau da, guztiak antzeko munduan dute ogibidea, baina, bakoitzaren beharrak ezberdinak izanik, bakoitzaren egoerarako hoberena eskeinitzeko diegu.

